

Pinua salbatzeko aukerarik bai? Txertoa posible al da?

Kobre Nordoxak emandako emaitzak “zoragarri onak” izan ziren. Aireko tratamendu esperimentalak baimendu zituen 2019an Espainiako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak eta horiek zera erakutsi zuten: intsinis eta larizio pinuen gaitzari eusten sekulako eraginkortasuna, alde batetik; eta bestetik, ingurumen kalterik eza. “Baina hala eta guztiz ere, ez dugu lortu aireko tratamendua zabaltzeko baimenik”, dio Amaia Ortiz Neiker ikerketa zentruko ikerlariak. Urrian Baskegurrek antolaturiko Egurraren Asteaz azaldu zituen Ortizek tratamendu esperimentaletan lortutako emaitzak. Iaz hasi zituzten frogak eta datorren urtera arte luzatuko dituzte... Nordoxa ezin bada, alternatibarik ba ote?

Itxaropenak bizirik dirau Neikereko Baso zientzien sailean. Landare-osasunerako produktu berriak aztertzen ari dira: zuhaitzen sistema immunologikoa aktiba dezaketen sustantzia naturalen bila. Amaia Ortiz eta Ander Arias doktoreak burutzen ari dira ikerketa eta Ortizek eman zuen emaitzen berri Egurraren Asteaz.



“Landareen fisiologia ezagutzea giltza garrantzitsuenetariko bat da”. Hau da, zein ezaugarri dituzte pinuaren gaitzari hobekien eusten dioten zuhaitzek? Zeintzu dira erresistentzia hori eragiten duten genak? Genetikaz ari gara. Hiru onddo dira pinuaren gaitza eragiten dutenak, baina horietako bi dira nagusiki Euskal Autonomi Erkidegoan xingola marroia zabaldu dutenak. Eta horiei aurre egiteko estrategia aldatu egin da.

“Nordoxa oso eraginkorra da, baina erabil ezin dugunez (lurretik bota daiteke soilik), estrategia zuhaitzen sistema immunologikoa bioestimulante eta mikroelikagaiekin aktibatzea da”, dio Ortizek; hau da, nekazaritza ekologikoan baimendutako produktuak eta jatekoak ere; hala nola, azeri-buztan, soja-lezitina edo legamia.

Amaia Ortizek azaldu zuenez, “gaur egun badakigu zuhaitz eta landareek sistema immunologikoa dutela, baina aktibatzea lortu behar dugu orain, gizakietan txertoekin egiten dugun bezala”. Hori da bidea eta lortzeko, hainbat produktuekin frogak egiten ari dira. Laborategian lehenik, eta basoan ondoren.

“Nordoxa oso eraginkorra dela argi geratu da, baina erabil ezin dugunez, estrategia zuhaitzen sistema immunologikoa bioestimulante eta mikroelikagaiekin aktibatzea da”

“Neikereren ez gaude bakarrik. Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritza, Uraren Agentzia, Ministerioa, Espainiako Baso Ikerketen Zentru Nazionala eta landare-osasunerako produktuetako hainbat aditu ere laguntzen ari zaizkigu formula zuzena topatzen”, azaldu zuen Amaia Ortiz ikerlariak.

Zuhaitz gogorrenak aukeratzen dituzte alde batetik eta ondoren in vitro errepikatzen dituzte: hobekuntza genetikoa, genotipo horiek aurrerago erabiltzeko. Laborategian emaitza onenak ematen dituzten materia aktiboak ere aukeratzen dituzte eta horiek, ondoren, basoan frogatzen dituzte. Hauekin lortzen ari garen emaitzak, Ortizek dioenez, “beti Nordoxarekin lortu genituen emaitz bikainekin alderatzen ditugu”.

Nordoxekin egindako frogek emaitza bikainak izan zituzten. Bizkaiko Amoroto herrian egin zituzten entseiuak, bertako 216 lursail txikietan, 26.000 zuhaitz kontrolpean zituztelarik. “Helikopteroarekin egindako entseiuetan, baldintza egokietan, argi geratu zen kobrea nahi dugun tokian jar dezakegula”, esan du Ortizek. Dronekin ere frogak egin dituzte eta emaitzak ere oso onak izan dira, baina aireontzi hauek behar bezala hegan egiteko baldintza meteorologiko egokiak behar dituzte, haizerik gabe.

“Airetik botatako kobrearen % 90 zuhaitzetan geratzen da eta % 10 soilik doa lurrrera; eta lurrrera doan horrek, ez du lurzoruan inongo kalterik eragiten, ezta uretan ere”

Emaitzak ezinhobeak izan ziren: “Nahi genuen tokitik bost metro harago, ez zen produkturik joaten”, zehaztu zuen Neikerereko ikerlariak. Are gehiago, “airetik botatako kobrearen % 90 zuhaitzetan geratzen da eta % 10 soilik doa lurrrera; eta doan horrek, ez du lurzoruan inongo kalterik eragiten, ezta uretan ere”. Emaitzek diote, gainera, “tratatu dugun lursailetik 100 metrora produktuaren % 1 baino ez dela joaten, hau da, 10 gramo hektareako”. Kontuan izan behar dugu, mahasti batean, adibidez, Nordox erabil daitekeela, baldin eta lau urtean 28 kilo baino gehiago ez baditugu botatzen.

Ortizek ustez, “aireko tratamendua ezinbestekoa da, baldin eta azalera handienara iritsi nahi badugu”. Hori bai, Administrazioak iritzia aldatze ez badu eta Nordoxa airez botatzen uzte ez badu, alternatibak aurkitu beharko ditugu bioestimulante eta mikroelikagai horien artean.

Amaia Ortizen hitzaldi osoa ondorengo estekan ikus dezakezu:
<https://youtu.be/jS3W6OPiIMM?t=1078>